

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2013ko URRIAREN 3an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO  
OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2013ko urriaren 3an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Aritz Usandizaga Larrañaga  
Gotzon Jauregi Sarasola  
Imanol Aranzabal Lasa  
*Jon Tejeria Otermin*  
*Karlos Irazu Muñoa*

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea


IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
  - **2013ko irailaren 12an egindako ohiko bilkura**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Tolosaldea Garatzen 2013 urteko ekarpenaren bigarren zatiaren ordainketa burutzea, hala bada.**
4. **Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari 2013ko 3. Eta 4. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea, hala bada.**
5. **Urbeltz auzoa 39 eskubian, terrazako paretan baldosak jartzeko baimena eskaera, I.B.**
6. **A.A. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
7. **J.J. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
8. **Kultur etxearen garbiketa Lidoinsa enpresari esleitzea, hala bada.**
9. **Aitzol Euskaltegiak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
10. **Fakturak eta ordainketak.**
11. **Beste batzuk.**
12. **Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2013 urteko irailaren 12ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

31/2013 Alkateza Ebazpena, irailaren 24koa, E.A. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena, non Larraulgo herrian 22 jardunaldiko lan komunitarioak egiteko baimena ematen zaion.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **TOLOSALDEA GARATZENI 2013 URTEKO EKARPENAREN BIGARREN ZATIAREN ORDAINKETA BURUTZEA, HALA BADA.**

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek eginiko eskaera, non Larraulgo Udalari eskaera egiten dion, 2013. urteari dagokion ekarpena burutu dezan, bere zenbatekoa 4.095 euro delarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Ikusirik lehen ekarpena martxoaren 30ean burutu zela, bigarren ekarpena burutzeko eskaera luzatzen duelarik, Tolosaldea Garatzenek.


Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzeni, 2013 urteko bigarren ekarpena burutzea, hau da, 2.047,50 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 2.047,50 eurotako gastua onestea.

### **LAUGARREN PUNTUA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2013KO 3. ETA 4. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2013ko irailaren 18an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2013 ekitaldiko 3 eta 4. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko, Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 13.000,00 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 13.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2013 ekitaldiko 3. eta 4. Hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 13.000,00 eurotako gastua onartzea.

#### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **URBELTZ AUZOA 39 ESKUBIAN, TERRAZAKO PARETAN BALDOSAK JARTZEKO BAIMENA ESKAERA, I.B.**

Ikusirik I.B. jaunak eginiko eskaera, non Urbeltz auzoa 39 eskubian, terrazako paretan baldosak jartzeko obra baimena eskaera egiten duela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:


LEHENGOA.- I.B. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Urbeltz auzoa 39 eskubian, terrazako paretan baldosak jartzeko obra baimena ematea, betiere kontutan izan beharko du, lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko direla.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

#### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **A.A. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik A.A. jaunak, hainbat larrauldarren izenean eginiko eskaera, non datorren larunbata eta igandean, urriak 18 eta 19an herriko parke zaharraren ondoan dagoen aparkalekuan egurra ebaki behar dutela, ostiralean etorriko den egur kamioia lekua izan dezan bertan egurra uzteko, ostiraletik aparkalekua ixteko eskaera egiten dio Larraulgo Udalari, egurra mozten urriaren 18an hasiz eta urriaren 19an iluntzean bukatzeko eta hau ez bada posible urriren 20ko eguerdian bukatuko da.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** A.A. jaunak eginiko eskaera onestu. Hau da, ostiraletik herriko parke zaharrean dagoen aparkalekua kotxeentzako itxiko dela, bertan, ostirala eta larunbatean dagokion herritarrek egurra mozteko, lanak bukatzean aparkalekua garbitu beharko delarik. Aparkamendu ondoan dagoen artasorua errespetatu egin beharko da.

**BIGARRENA:** Aipaturiko baimena hirugarrenen kalterik gabe izango da.

**HIRUGARRENA:** A. jaunari jakinarazi egurra mozteko beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartu beharko dituela eta Larraulgo Udala ez dela kargu egiten bertan ezbeharririk gertatzen bada.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **J.J. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik J.J. jaunak, Erlezainen izenean eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

*“Dokumentu honen bitartez, beheko sinatzaileak zera eskatzen dio udal honi:*


*1.Udal honek, asiako liztorryaren habiak kentzeko herritar boluntarioen taldeak sortzeko pausoak eman ditzala, Gipuzkoako Foru Aldundiak osaturiko protokoloak ezarri bezala.*

*2.Nere erlategitik gertu (1000 metroko erradioan) agertzen diren habiak kendu daitezela, udalak sortutako talde horien bitartez. Habiak ez kentzeak nire erleen biziraupena baldintzatu dezake.*

*Eskaera hau aintzat hartuko delakoan, jaso nire agurra.*

*J.J.S.”*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.J. jaunari jakinarazi, Larraulgo Udalak, asiako liztorraren habiak kentzeko herritar boluntarioen taldeak sortzeko pausoak ez dituela emango. Liztor hauen habiak kentzeko, lur hiritarrean, herri langileak egingo duelako (prestaketa ikastaroetara joan da) eta honek ezingo balu suhiltzaileei dei egingo zaie, Gipuzkoako Foru Aldundiak osaturiko protokoloan aurreikusten den modura.

BIGARRENA: J.J. jaunari jakinarazi, asiako liztorren habiak kentzeko, lur ez hiritarrean, basozainei dei egingo zaiela, Gipuzkoako Foru Aldundiak osaturiko protokoloan aurreikusten den modura.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **KULTUR ETXEAREN GARBIKETA LIDOINSA ENPRESARI ESLEITZEA, HALA BADA**

*Une honetan, arratsaldeko 19.50 orduetan, Jon Tejeria zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.*

Ikusirik 2013/2014 ikasturterako kultur etxearen garbiketa zerbitzua Larraulgo Udalak bere gain hartu behar duela, Larraulgo Guraso Elkarteak jakitera eman duenez, ez duelako jarraitu behar zerbitzu hau eskaintzen.

Ikusirik Larraulgo Udalak zerbitzu hori prestatzeko bi aurrekontu eskatu dituela ZU ETA BOK eta LIDOINSA enpresei hain zuzen. Kontratu txiki bat dela kontutan hartuz.

Ikusirik Lidoinsa enpresaren aurrekontua egokiena zela, hilabetez esleitu zitzaion zerbitzua eskaintzera, proba modura.

Ikusirik proba garaian Lidoinsa enpresak txukun egin duela garbitasun zerbitzua.


Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: LIDOINSA enpresari, Kultur etxea eta Udaletxea garbitzeko aurkezturiko aurrekontua onestea eta zerbitzua esleitzea, esleipena 2014ko abuztuaren 31rarte izango da, ondorengoa delarik aurkezturiko aurrekontua:

Garbiketa:

Kultur etxea: Egunero 1.5 ordu ( 0.5+1)



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udala: Astean 1.5ordu  
Orduko prezioa: 19.5euro

**BIGARRENA:**LIDOINSA enpresari jakinaraztea, Udalaren esku egongo dela, garbitasunari buruz keak badaude edo fakturarekin adostasun faltak sortzen badira, edozein momentutan kontratua moztu ahal izango duela, inolako kalte-ordainik gabe.

**HIRUGARRENA:** Ebazpen honen berri ZU ETA BLOK ETA LIDOINSA-ri ematea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

#### **AITZOL EUSKALTEGIAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Aitzol Euskaltegiak eginiko proposamena, non azaltzen duen, Tolosara gerturatzen diren Tolosaldea inguruko herrietako herritarrak, matrikula ordaintzeko garaian, % 50a eurek ordaintzen dutela, eta beste % 50a dagokion Udaletxeak. Ikasle guztiak baldintza berdinak izan dezaten, Larraulen eskaintzen diren euskara ikastaroetako ikasleei ere, aipaturiko baldintzak aplikatu daitezela proposatzen dute.

Aitzol Euskaltegiak eginiko proposamena onartu ezker, ikasle bakoitzak kontratu bat sinatu beharko luke, bertan jartzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bestela, kurtso amaieran Udalak jarritako % 50 eko diru-laguntza bueltatu beharko dute.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### **ERABAKITZEN DU:**

**LEHENA:** Aitzol Euskaltegiak eginiko proposamena onestea, hau da, Euskara ikastaroa egiten duten herritarrei, matrikularen % 50 ordaintzea.


**BIGARRENA:** Euskara ikastaroa egiten duten herritarrek, Larraulgo Udalak aipaturiko matrikularen erdia diruz laguntzeko, kontratu bat sinatu beharko dute, bertan agertzen diren baldintza guztiak beteaz.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

EINBER	492,42
LAVANDERIA LIZARRA	266,62
TOLOSALDEA GARATZEN	240,00



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

KOPIDIN	232,40
BERRI LANTEGIA	102,08
GIPUZKOAKO URAK S.A.	4.390,87
MOVISTAR	17,40
MOVISTAR	17,55
MOVISTAR	48,83
MOVISTAR	89,48
MOVISTAR	137,44

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

### ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.035,09** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### HAMAIKAGARREN PUNTUA

#### **BESTE BATZUK**

#### **11.1. DINA-7 KULTUR ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

*Une honetan, arratsaldeko 20.00 orduetan, Karlos Irazu zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.*

Ikusirik DINA-7 Kultur Elkarteak ondorengo eskaera egin duela:

*“Dina 7 kultur elkarteak eskaera hauek luzatzen dizkio Larraulgo Udalari:*

*1.-Museoaren atarian egurrezko estalpe bat jartzea eseri leku batekin. Aterpea 2mx2mx1 izango da haritzarekin egina eta lurrean graba pixka bat izango du. Teilatua egurrezkoa eta begetala izango da inpaktua gutxitzeko.*

*2.-Ekomuseoaren panel informatibo bat jartzea plazan.*


*3.-muralaren barreneko papelera lekuz aldatzea.*

*Dina-7 Kultur Elkarteak”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Karlos Irazu zinegotziaren abstentzioarekin, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Dina -7 Kultur Elkarteak eginiko eskaerak onestu.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA Dina -7 Kultur Elkarteari erabaki honen berri ematea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

#### **12.1. “IGELDO UDALERRI IZAN DADIN”, ATXEKIMENDUAREN AZTERKETA.**

Igeldo Donostiatik banantzeko lan egiten duen Elkarteak “ ITSAS AURRE ELKARTEA” ondorengo atxekimendua aurkezten du:

#### **“IGELDO UDALERRI IZAN DADIN, LARRAULGO UDALBATZAK EMATEN DION ATXIKIMENDUA**

*Igeldoko Herria 1995etik ari da Udalerria bihurtzeko ahaleginetan. Mila biztanletik zein mila hektareatik gora, bere uka ezinezko izaera propioa eta desberdina, eta behin eta berriro agertutako borondatea eta adorea, ez dira oraindik nahiko izan Udalerri legez aitortzeko eta aldarrikatzeko.*

*Iritsi zaio ba da, azken erabakia hartzeko garaia. Herri galdeketa deitua dauka jada Foru Aldundiak, eta horretan Igeldoko herritar guztiek izango dute euren ahots librea.*

*Une horren aurrean eta herritarren erabakiaren ondorioz etor daitezten erabakien atarian, Larraulgo Udalbatza honek bere animo eta atxikimendu osoa agertu nahi dio Igeldoko Herriari bere ibilbidea bete dezan eta ahalik eta lasterren Udalerria bihurtu dadin.”*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### **ERABAKITZEN DU:**


**BAKARRA:** Itsas aurre elkarteak aurkezturiko “Igeldo Udalerri izan dadin” idatziari, Larraulgo Udalbatzak, bere atxikimendua ematen dio.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

**ALKATEA**

**IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA**





**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

